

TAILERREN ERABILPENERAKO BALDINTZAK

1. Tailerretara sartzeko eta hauen erabilera egiteko, artistaren curriculum profesionala eta egun garatzen ari den lanari buruzko laburpen orokor bat biltzen dituen formatu digitalean egindako txosten artistiko bat aurkeztu behar da. Informazio pribatu hau zuzendaritzak eta erabiltzaileak bere lan gehiena jarduteko aukeratu duen tailerreko arduradunak egiaztatzeko “soilik” erabiliko da.

2. Erabiltzaileak 50€ko urte-kuota bat ordaindu beharko du (*diru-sartze eta egiaztatgarria aurkezteko epea: otsaileko lehenengoko hamabostaldia*), eta honen bidez, Fundazioak tailerreko erabiltzaile guztientzako duen istripu-estaldura aseguruua eta Fundazioko instalazioetan sartzeko eta zerbitzu desberdinak erabiltzeko behar den nortasun txartela jasotzeko eskubidea izango du.

Halaber, artista-erabiltzaile kategoriak Bilbao Arte Fundazioan sarri antolatzen diren hainbat ekintza, mintegi eta praktika desberdinetan ezar daitezkeen deskontuez (30% eta 50% bitartekoak) baliatzeko ahalmena ematen dio pertsonari.

3. Fundación Bilbao Arte Fundaziorako sarrera eta egonaldia Zentroko hasiera-programan ageri diren egutegi eta ordutegien arabera egingo da.

4. Tailerren erabileraren baimenak ez du inongo eskubiderik ematen esparru edo baliabide materialak eskusiboki erabiltzeko, beraz, hauen erabilera beste artista batzuekin partekatu egin beharko da. Hori dela eta, funtsezkoa da zerbitzu jakin batzuk erabili aurretik ordua eskatu eta erabileraren iraupena jakinaraztea tailer bakoitzeko arduradunari.

5. Fundazioak material eta burutzen ari diren lan artistikoetan edozein gertakarigatik (sutea, lapurreta, uholdea, etab.) gerta litekeen edozein kalte edo galtzeren erantzukizuni uko egiten dio.

6. Zentroko eta egokituta dauden guneeetako erabilera zorrozki debekatuta dago giza eskubideak urratzen dituzten parte-hartze guztietarako eta adierazpen askatasuna iraindu edo honen aurka eraso egiten duten ekintzetarako. Arau honen hausteak ekintzen berehalako amaiera eta zentrotik kanporatzea suposa dezake.

7. Fundazioko zentroko materialak eta laguntza erabiliz egin diren lanen erakusketa publikoa egiterako orduan lan hauek Bilbao Arten ekoiztu direla espresuki aipatu behar izango da. Arau honen hausteak erabateko gaitasun-gabetzea eta Bilbao Arteko erabiltzaile eskubideen galera adieraziko du.

8. Tailerretara sarrera arduradunaren gainbegiratzearekin izango da beti, bertan egingo den lanaren plan bat aurkeztuz aurretiaz, espazio desberdinen erabilera zehaztuz berau errestatzeko, eta proiektua gauzatzeko behar izango diren baliabide tekniko eta materialak zehazteko ere.

9. Zuzendaritzak modu esplizituan baimendu behar izango dituen ustezko bereziak salbu, lanaren gauzatzean erabili izan diren material suntsikorrak artistak berak jarri beharko ditu.

10. Guztion erabilerarako diren lan-guneetan ibili ondorez, esparru hauetan artelanak egiteko erabili izan diren material eta makinak batu eta erabat garbi eta berriz erabiltzeko prest uzteko eguneroko betebeharrak solidarioa dago. Arau hau behin eta berriz haustearen jokoerak zerbitzuen erabilpenaren aldi baterako geldialdia izango du ondorio.

11. Artista ezin izango da sartu erabiltzen ari den tailerrean ikastaro eta mintegiak egiten diren bitartean. Tailerren ateetan jakinaraziko da espazio hori zenbat denbora egongo den “zerbitzuz kanpo” astebete arinago. Halaber, ekintza guztiei buruzko informazioa web orrialdean ere agertuko da.

12. Tailerretan eskaintzen diren zerbitzu batzuk behin eta berriz erabiltzearen ondorioz sor daitezkeen materialen gastu edo kostu esanguratsuak ezarritako tarifen arabera ordaindu behar izango dira (inprimatzeak, labealdiak, etab.)

ERABILERA-BALDINTZAK ONARTZEKO FITXA

Lantegien erabilera-baldintzak ezagutzen eta onartzen ditudala adierazten dut, eta, ados nagoela adierazteko, kontratu honetako orri guztiak sinatzen ditut.

IZEN-DEITURAK:

NAN: _____**HELBIDEA:**

TELEFONOA: _____**POSTA ELEKTRONIKOA:**

LANA BURUTZEKO AUKERATZEN DEN TAILERRA:

3 _____

- GRABATUA ETA SERIGRAFIA
- ESKULTURA
- IRUDI DIGITALA ETA PLATOA
- MEDIALAB

DATA ETA SINADURA

ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. Txosten artistikoa eta proiektua. Proiektuak hurrengo hauek izan behar ditu:

- Artistaren erakusketa, aipamen eta ekintza garrantzitsuenak batzen dituen curriculum profesionala.
- Fundazioan garatu nahi den lan-plana eta hau betetzeko behar diren helburuak.
- Proiektua burutzeko behar izango diren material, makineria eta tresnen gutxi gorabeherako azterketa.
- Instalazioak erabiltzeko uste den eguneroko ordutegiaren azalpena. (*Egunero egin daitekeen instalazioen erabileraz gain, momentu berezietan —berehala datorren erakusketa baten prestaketan edo epe laburreko ekintza baten parte hartzean— aldeztu aurretik tailerren arduradunekin hitz eginda, lehentasuna emango zaie momenturo premia gehien duten lanei*).

Bidali bilbaoarte@bilbao.eus helbidera zein tailer erabili nahi den/diren adieraziz eta horietatik gehien erabiliko dena azpimarratuz.

Behin onarpena baieztatuz gero, gainerako dokumentazioa eskatuko da:

2. N.A.N.aren edo pasaportearen irudia.
3. Tailerren erabilpena egiteko baldintzen onartzearen dokumentua beteta eta sinatuta.
4. Urteko kuotaren ordainketaren agiria (50 €) Otsailaren 1etik Otsailaren 1era.

4

KUTXABANK IBAN ES44 2095 0611 0091 0304 4349